

# TRINKETEKO ELITEKO FINALERDIAK BADAUDE ERABAKITA

Sevilla-Ugarte Arabiourrutia-Iraolaren kontra, eta Cilaurren-Gurutzealde Maiz-Arbizuren kontra izango dira ostiraleko norgehiagokak

Dagoeneko ezagutzen dira trinketeko eskuz binakako Elite Txapelketako finalerdietan arituko diren pilotarien izenak eta hauexek izango dira ostiral honetan bertan, 18:45etatik aurrera Abadiñoko Tornosolo trinketean jokatuko diren norgehiagokak: Sevilla-Ugarte (Zaramaga-Kurene), Arabiourrutia-Iraolaren kontra (Atxarte-Behar Zana), eta Cilaurren-Gurutzealde (Lemoa-Mundarro), Maiz-Arbizuren kontra (Behar Zana-Buruz Gain). Irabazleak uztailaren 8ko finalean egongo dira.

Lehenengo bi bikoteek ostiralean lortu zuten sailkapena, aipatutako kantxan Sevilla-Ugartek 40-37ko emaitzaz menderatu baitzituzten Ibarrondo eta Etxebarria, eta jarrian, Arabiourrutia-Iraola 28-40 nagusitu baitziren Santesteban-Anguloren aurka.

Final laurdenetako beste bi lehiak larunbatean ospatu ziren eta orduan, Cilaurren-Gurutzealdek aise irabazi zieten Loitegi-Kandelari (20-40) eta gauza bera egin zuten Maiz-Arbizuk Arruti-Aspururen kontra, baina kasu honetan, emaitza 40-32koa izan zen.

www.euskalpilota.org

# EL ÉLITE DE TRINKETE YA TIENE SEMIFINALISTAS

Sevilla-Ugarte contra Arabiourrutia-Iraola, y Cilaurren-Gurutzealde contra Maiz-Arbizu, duelos para el viernes

El Campeonato Élite de mano parejas en trinkete ya conoce a sus semifinalistas. En concreto, este mismo viernes, a partir de las 18:45 horas, serán Sevilla-Ugarte (Zaramaga-Kurene) y Arabiourrutia-Iraola (Atxarte-Behar Zana); por un lado, y Cilaurren-Gurutzealde (Lemoa-Mundarro) y Maiz-Arbizu (Behar Zana-Buruz Gain); por el otro, los que luchen en el trinkete Tornosolo de Abadiño por alcanzar la final, anunciada para el próximo día 8.

Las dos primeras parejas obtuvieron el pase al superar las eliminatorias disputadas el pasado viernes en el citado recinto vizcaíno. Así, Sevilla-Ugarte doblegaron por un resultado de 40-37 a Ibarrondo-Etxebarria, mientras que a continuación, Arabiourrutia-Iraola doblegaron por 28-40 a Santesteban-Angulo.

Los otros dos duelos de cuartos tuvieron lugar el sábado, cuando Cilaurren-Gurutzealde ganaron por un holgado 20-40 a Loitegi-Kandela, y Maiz-Arbizu hicieron lo propio con Arruti-Aspuru, aunque en este caso, el tanteo fue de 40-32.